Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko irailean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2022ko irailean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.573 izan da, abuztuan baino 901 gehiago eta joan den urteko irailean baino 249 gehiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2022ko irailean 201 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 533 Gipuzkoan eta 839 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 33,9 Gipuzkoako KAUetan erregistratu dira, % 53,3 Bizkaiakoetan eta % 12,8 Arabakoetan.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 13,4 hazi dira eskaintzak (65 eskaintza gehiago). Bizkaian 582 eskaintza gehiago izan dira (% 226,5eko gorakada) eta, azkenik, Gipuzkoan 254 eskaintza gehiago (% 91ko igoera).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 6 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 3,1eko hazkundea, Bizkaian % 36 hazi dira eskaintzak (222 gehiago), eta azkenik, Gipuzkoan % 4,1ekoa da hazkundea (+6 eskaintza).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Lanbide-profilei dagokionez, zientzietako teknikarien profilerako erregistratu dira eskaintza gehien; 430 eskaintza eta, % 27,3ko pisua eskaintza guztien artean. Laguntzako teknikarien profilak jarraitzen dio (298 eskaintza, % 18,9ko pisua). Industriako, ez kualifikatuen eta zerbitzuetako eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 234, 193 eta 191 eskaintza erregistratu dira, hurrenez-hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, zuzendariak eta lehen sektorekoak izan dira, 8 eskaintza profil bakoitzean.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza mota guztietan hazi dira eskaintzak, lehen sektorekoak izan ezik; profil honetako 3 eskaintza gutxiago erregistratu dira (11 tik 8ra pasa dira). Gehien hazi diren eskaintzak, balio absolutuetan, zientzietako teknikarien profilekoak izan dira (293 eskaintza gehiago, % 213,9ko gorakada); balio erlatiboetan, berriz, gorakada nabarmenena laguntzako teknikarien eskaintzatan gertatu da (% 277,2ko gorakada, 219 eskaintza gehiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, profil gehienetako eskaintzak hazi dira. Gehien hazi direnak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, zientzietako teknikarien profilekoak izan dira (169 eskaintza gehiago, % 64,8ko hazkundea). Beste muturrean, gehien murriztu diren eskaintzak, modu absolutuan, zerbitzuetako eskaintzak izan dira (-42 eskaintza, % 18ko beherakada); modu erlatiboan,

aldiz, beherakada nabarmenena lehen sektoreko eskaintzek jasan dute (% 42,9koa jatsiera, 6 eskaintza gutxiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 27,9k kontratu mugagabea eskaini dute; % 71,6k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,5ak, merkataritzakoa. Kontratu mugagabea eskaini duten eskaintzen portzentaia altua da; 2021etik zetorren joera indartzen ari da 2022an. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 439 izan dira, aurreko hilabetean baino 196 eskaintza gehiago (% 80,6ko gorakada). Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 700 eskaintza gehiago erregistratu dira: 1.126 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan gorakada % 164,3koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2022ko irailean 8 izan dira, aurreko hilean baino 5 gehiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 220 gehiago izan dira (% 100,5eko hazkundea); aldi baterako kontratuen eskaintzak % 2,9 hazi dira (32 eskaintza gehiago). Eta, azkenik, merkataritzako 3 kontratu gutxiago erregistratu da (11tik 8ra,azken urtean).

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2022ko irailean erregistratutako lan-eskaintzen % 79,5ek, 1.250 eskaintzak, 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 10,8k (170 eskaintza) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 1,3ko pisua dute (20 eskaintza) eta, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen duten 7 eskaintza egon da hil honetan (eskaintza guztien % 0,5).

Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintzak hazi egin dira tarte guztietan. Gehien hazi direnak, bai balio absolutu zein erlatiboetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (743 eskaintza gehiago, % 145,6ko gorakada).



Urte arteko eboluzioari dagokionez, gehien hazi den tartea, 0-6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenena izan da 260 eskaintza gehiago jaso baitira (%26,3ko igoera); 6-12 hilabeteko esperientzia tartea eskatzen dutenena ere hazi egin da (+9 eskaintza,%5,6ko igoera). Beste muturrean, urte 1 baino gehiagoko esperientzia eskatzen dutenen eskaintzak murriztu egin dira tarte guztietan. Murrizketa handiena, 3 eta 5 urtekoen artean izan da (% 41,2ko beherakada, 14 eskaintza gutxiago).

Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko irailean

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezain beste.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 22,2k zehazten du datu hori (1.573 eskaintzetatik 349). 349 eskaintza horietatik, 316k lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 33ak, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 245 gehiago izan dira abuztuarekin alderatuz, hau da, % 345,1 igo dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak ere hazi egin dira; 17 eskaintza gehiago eta hazkunde erlatiboa % 106,2koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 218 gehiago izan dira (% 2222,45eko hazkundea), eta lanaldi partzialeko kasuan, berriz, 17 gutxiago (% 34ko beherakada).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 12 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 4 eskaintza gehiago eta aurreko urtean baino 1 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 72,4k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.573 eskaintzetatik 434k soilik zehaztu dute.

434 eskaintza horietatik, 208k unibertsitateko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, LHko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, 153 eskaintza erregistratu dira. Azkenik, oinarrizko eta batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (55 eta 18 eskaintza, hurrenez hurren).



Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, mota guztietako ikasketen eskaintzak hazi dira. Gehien igo diren eskaintzak, balio absolutu zein erlatiboetan, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (169 eskaintza gehiago, % 433,3ko gorakada).

Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko irailean

2021eko irailarekin alderatuta ere, hazi egin dira eskaintzak ikasketa maila guztietan. Urte arteko erreferentzian ere, unibertsitateko ikasketen eskaintzak izan dira gehien hazi direnak; 147 eskaintza gehiago eta % 241eko igoera.

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena administrazio publikoa da; honen pisua eskaintza guztien % 16,4koa izan da (258 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera bat manufaktura industria da, eskaintzen % 12,3ko pisuarekin (194 eskaintza).

Aurreko hilari erreparatuz, ia eskaintza guztiak hazi dira. Balio absolutuetan, gehien igo diren eskaintzak, administrazio publikokoak izan dira (215 eskaintza gehiago, % 500eko gorakada); balio erlatiboetan, aldiz, hazkunde nabarmena finantza eta aseguru jarduerek izan dute (% 700eko igoera, 5 eskaintza gehiago). Beste muturrean, argindar eta ur horniketako jarduerak daude, hauek izan murriztu diren bakarrak (eskaintza 1 eta 2 gutxiago, hurrenez hurren).

Urte arteko saldoari erreparatuz, bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, bai balore absolutu zein erlatiboetan, administrazio publikokoak izan dira (172 eskaintza gehiago, % 200eko hazkundea). Bilakaera okerrena izan duten eskaintzak, osasun jarduerakoak izan dira; 22 eskaintza gutxiago eta % 19,8ko beherakada.